SINOPSIA

78 minutuko dokumental errealista eta onirikoa, euskal mitologiaren pertsonaia nagusian oinarritua. Mari, Amari, Andere, Señoria edo Anbotoko dama. Paleolitikotik gaur egun arte Euskal Herriaren oroimen kolektiboan bizirik iraun duen aintzinako andere misteriotsua. Mari, euskal mundu primitiboaren metafora handia da eta zorionez, iraun ez ezik, oso lagungarria izan daiteke gaur egungo gizartearen arazoei aurre egiteko.

Nor da Mari? Zer da Mari?

Marija Guimbutas Lituaniako arkeologo jakitun eta famatuak zioen bezala, paleolitikoan eta neolitikoan, Europa osoan izan zen Jainkosaren gurtzaren oinordeko bakarra da, Euskal Herrian biziraun duena euskararekin batera.

Dokumentala, ANDEREA mitoaren hausnarketa sakona da, horregatik euskal mitologiaren ikerlari jakintsuei eta adituei egindako elkarrizketekin osatzen da: Toti Martinez de Lezea, Felix Guerenabarrena, Juan Ignazio Hartsuaga, Claude Labat, Ixabel Millet, Josu Naberan, Guillermo Piquero, Peio Zabala, Enrike Zelaia eta Jose Ramón Zubimendi.



YOLANDA MAZKIARAN ZELAIA

Altsasu 1963. Zinemagile independentea. Bi urtetan Nafarroako dokumental zuzendari hoberena. Zinemagintza Masterra eta ikasketak EHUn, Londonen, Berlinen, Amsterdamen eta Pragan. Magisteritza eta Ingeles Filologia ikasketak EHUn. Gaur egun Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko irakaslea da.

ANDEREA

Mariren jatorrian, izaeran eta balioetan sakontzen duen dokumentala



ZERGATIAK

Mari, naturaren pertsonifikazioa da. Euskal unibertso mitologikoan emakumea da nagusi. Emakumeen jabekuntza gaur egungo topiko garrantzitsua da. Gure mitologian badugu ANDERE SUBIRANOA, 35.000 urte baino gehiago dauzkana. Dokumental honen bidez, MARIren memoria eta oroimen historikoa berpiztu nahi dugu, EMAKUME ASKEAREN EREDUA delako. Ez dago inoren menpe eta mitologiako beste pertsonaia guztiak bere proiekzioak dira.

Euskal kulturan ANDEREA era batean sustraitua den gaia da. Gure arbasoetatik jasotakoa. Aintzakotzat hartzen ditu herri jakindurian oinarritutako hainbat balore eta gaur-gaurkoz gure herriko eremu geografiko askotan guztiz txertatua dugu. Naturak, ingurumenak, emakumeak eta auzolanak besteak beste, berebiziko garrantzia dute.

HELBURUA

Euskaldunok gara herri aurre-indoeuroparren ikuspegiaren arrastoak gordetzen ditugun herri bakarra Europan.
Dokumentalaren HELBURU nagusia bere ZABALKUNDEA da, datozen belaunaldiei zabaltzea, transmisioa ez dadin eten.
Landatutakoak, kimu berriak hedatu behar ditu. Ezin dugu altxor hori galtzen utzi.



Kontaktua: eguaroak@hotmail.com
lilimazkiaran@hotmail.com